



bizkaiko
berrikuntza
behatokia

observatorio
de la innovación
de bizkaia

2013



**BIZKAIKO TEKNOLOGI
BERRIKUNTZAREN INKESTA**
ENCUESTA DE INNOVACIÓN
TECNOLÓGICA DE BIZKAIA



Bizkaiko Foru A dundia
Diputación Foral de Bizkaia



BILBOKO
MERKATARITZA
GANBERA

CÁMARA DE
COMERCIO
DE BILBAO



/barrixe



@barrixe

Hau txosten zabalago baten
laburpena baino ez da, web
honetan eskura daitekeena.

Versión reducida de un
informe más amplio
disponible en:

www.barrixe.com



Euskal Estatistika Erakundeak (Eustatek) 2009-2011 aldiak jasotzen dituen 2011ko Teknologia Berrikuntzaren Inkesta egin zuen. Txosten hau egiteko Inkestan jasotako 10 langile edo gehiago dituzten Bizkaiko datuen taula aztertu eta landu da. Barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak berariaz eskatu dio Eustati informazio hau txosten honetarako.

Inkestak dioenez, berrikuntza teknologiko bat da produktu (edo zerbitzu) berri bat edo nabarmen hobetu bat merkatuan sartua dagoena (produktuaren berrikuntza) edota establezimenduaren barruan prozesu berri bat edo nabarmen hobetu bat sartzea (prozesuaren berrikuntza). Elementu hauexetan oinarritzen da berrikuntza teknologikoa: garapen teknologiko berrien emaitzetan, lehendik existitzen diren teknologien konbinazio berrietan edota establezimenduaren beste ezagutza batzuen erabileran. Ez dira berrikuntza teknologikotzat hartu behar antolakuntza edo kudeaketa arloetako aldaketa hutsak.

Bizkaiko enpresa* berritzailearen erradiografia

Jarduera berritzaileak burutzen dituzten enpresak
Empresas con actividades innovadoras tecnológicas

Produktu berritzaileak sortu dituzten enpresak
Empresas que han introducido productos innovadores

Produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa ENPR./MERK.
Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa

Merkaturako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa
Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado

Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak
Empresas que han introducido procesos innovadores

Berritzen duten eta berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak
Empresas que innovan y que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación

I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak
Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación

Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte
Han encontrado dificultades para realizar innovaciones

Patenteen eta bestelako babes metodoen erabilera
Uso de patentes y otros métodos de protección

Antolakuntzako berrikuntza egin dute
Han realizado innovación organizativa

Merkaturatze berrikuntza egin dute
Han realizado innovación en comercialización

*10 langile edo gehiagokoak

1 adierazlea aldi hauetako hurrenez hurren: 2009-2011, 2008-2010 eta 2007-2009

2 Produktuan edo prozesuan berrikuntza teknologikoko jarduerak egin dituzten establezimenduak, egiten ari direnak edo huts egin dutenak barne.

El Instituto Vasco de Estadística (Eustat) realizó la Encuesta de Innovación Tecnológica 2011 que abarca los años 2009 a 2011. El presente informe se basa en el análisis y explotación de las tablas de datos referidas a las empresas de 10 o más trabajadores de Bizkaia de dicha Encuesta, la información ha sido obtenida ad-hoc para barrixe, el Observatorio de Innovación de Bizkaia.

Una innovación tecnológica, tal y como se define en la Encuesta, es un producto (bien o servicio) nuevo o sensiblemente mejorado introducido en el mercado (innovación de producto) o la introducción dentro del establecimiento de un proceso nuevo o sensiblemente mejorado (innovación de proceso). La innovación tecnológica se basa en los resultados de nuevos desarrollos tecnológicos, nuevas combinaciones de tecnologías existentes o en la utilización de otros conocimientos adquiridos por el establecimiento. Los simples cambios de organización o de gestión no deben incluirse como innovaciones tecnológicas.

Radiografía de la empresa* innovadora de Bizkaia

	2011 ¹	2010 ¹	2009 ¹
Jarduera berritzaileak burutzen dituzten enpresak Empresas con actividades innovadoras tecnológicas	24,5%	26,5%	27,9%
Produktu berritzaileak sortu dituzten enpresak Empresas que han introducido productos innovadores	19,3%	17,2%	14,9%
Produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa ENPR./MERK. Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa	33,5%	30,1%	30,8%
Merkaturako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado	14,6%	14,7%	7,7%
Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que han introducido procesos innovadores	20,5%	18,4%	23,1%
Berritzen duten eta berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak Empresas que innovan y que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación	51,5%	49,9%	49,6%
I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación	30,8%	25,5%	26,5%
Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte Han encontrado dificultades para realizar innovaciones	68,3%	67,2%	64,4%
Patenteen eta bestelako babes metodoen erabilera Uso de patentes y otros métodos de protección	24,5%	29,8%	27,4%
Antolakuntzako berrikuntza egin dute Han realizado innovación organizativa	19,7%	20,4%	23,7%
Merkaturatze berrikuntza egin dute Han realizado innovación en comercialización	9,4%	9,1%	11,3%

*con 10 o más trabajadores/as/as

1 el indicador corresponde sucesivamente al período: 2009-2011, 2008-2010 y 2007-2009


2 establecimientos que han realizado actividades de innovación tecnológica en producto o proceso, incluyendo aquellas que se encuentren en curso o hayan resultado fallidas.

Teknologi berrikuntzarako jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %24,5ek teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte 2011. urtean, hau da, 2010ean baino ehuneko bi puntu gutxiago.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK



- 1 patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea
- 2 berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak
- 3 beste atal batzuetan sartzen ez diren berrikuntzak inplementatzeko prestaketak.

10 langile edo gehiagoko industri establezimenduen %36,6k eta zerbitzu establezimenduen %23,4k hainbat jarduera burutu dituzte 2011n teknologi berrikuntzak lortzeko.


Tamainak oraindik ere badu eragina berrikuntzan, izan ere, berrikuntza gutxien sortzen dituzten enpresak 10 eta 19 langile bitartekoak dira.

Actividades para la innovación tecnológica

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados.

Un 24,5% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados ha realizado en 2011 actividades relacionadas con la innovación tecnológica, un porcentaje dos puntos porcentuales inferior al de 2010.

ACTIVIDADES PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



- 1 compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.
- 2 actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones
- 3 preparativos para realizar la implementación real de las innovaciones no comprendidos en otros apartados

Un 36,6% de los establecimientos industriales y un 23,4% de los de servicios de 10 ó más empleados han llevado a cabo diversas actividades en 2011 con la finalidad de obtener innovaciones tecnológicas.


El tamaño es un factor que continúa influyendo en la innovación, así, las empresas de entre 10 y 19 trabajadores son las que menos innovan.

Produktuan edo/eta prozesuan berritzen duten enpresak

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresa berritzaileen ehunekoa %28,3koa izan da 2011n, hau da, aurreko urtean baino 2,7 puntu altuagoa.

Industriaren sektorean enpresen portzentajea are handiagoa da, alegia, %39,2koa (2010eko kopurua baino hiru puntu handiagoa). Zerbitzuen sektoreak ere bide berari jarraitzen dio, kasu honetan 2,9 puntu egin duelarik gora. Eraikuntza sektorean 10 langile edo gehiago dituzten enpresek atzera egin dute 2010. urtearekin alderatuta (%6,5 lehengo %8,3ko portzentajearen aldean).

PRODUKTU EDO/ETA PROZESUAN BERRITU DUTEN
ESTABLEZIMENDUAK JARDUERA ADARREN ARABERA




Enpresaren tamainak badu eragina produktua edota prozesua berritzeko gaitasunean, hartara, bi segmentu nabarmen desberdin agertzen zaizkigu, alde batetik, 10 eta 49 langile bitarteko enpresetan berrikuntza tasak ez dira batez bestekora iristen, eta bestetik, 50 langile eta gehiago dituzten Bizkaiko enpresen %39k baino gehiagok berrikuntzak sortzen dituzte produktuan edota prozesuan.

Empresas innovadoras en producto y/o proceso

El porcentaje de empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados innovadoras de Bizkaia en producto y/o proceso en 2011 alcanza un 28,3%, una tasa superior en 2,7 puntos al correspondiente a un año antes.

El porcentaje de empresas de 10 ó más empleados del sector industrial es todavía más elevado, alcanzando una tasa del 39,2% (tres puntos superior a la cifra de 2010). El sector de servicios, por su parte, también presenta un avance, en este caso de 2,9 puntos. Las empresas del sector de la construcción de 10 o más empleados retroceden con respecto a 2010 (6,5% frente a un 8,3%).

ESTABLECIMIENTOS INNOVADORES EN PRODUCTO Y/O
PROCESO POR RAMA DE ACTIVIDAD



El tamaño de empresa influye en la capacidad de innovación en productos y/o proceso, así, observamos que se producen dos segmentos claramente diferenciados, por un lado, las empresas de los grupos de 10 a 49 trabajadores con tasas de innovación que no alcanzan la media general, y por otro, las de 50 ó más, en este segundo grupo más de un 39% de las empresas de Bizkaia innova en producto y/o proceso.

Teknologi berrikuntza mota

Bizkaiko 10 langile edo gehiagoko enpresek, edozein dela ere beren jardueraren produkzio sektorea, berrikuntza gehiago sortzen dute prozesuan (%20,5) produktuan baino (%19,3), baina datuek erakusten dute aldea ez dela oso nabarmena.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko sektore guztietako enpresek joera orokorrari jarraitzen diote, gehiago berritzen dutelarik prozesuan produktuan baino. Industriak gauzatzen du prozesuko berrikuntzaren portzentaje handiena, nahiz eta tasa hori gero eta hurbilago dagoen produktuko berrikuntzatik (%28,7 eta %25,8 hurrenez hurren). Zerbitzuen sektoreak ere (%20,4) gehiago berritzen du prozesuan (%18,2) produktuan baino (%9,6). Kasu honetan aurtengo tasak aurreko urtekoak baino urrunago daude. Eraikuntza sektoreari dagokionez, prozesu berrikuntzaren portzentajea %6,5koa da eta produktukoa, berriz, %5,3ra baino ez da iristen.

Prozesuko berrikuntza da nagusi enpresa txikienetan eta handienetan; tamaina ertaineko enpresetan, aldiz, egoera nahiko orekatua da.



Tipo de innovación tecnológica

Las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia, independientemente del sector productivo en el que desarrollen su actividad, innovan más en proceso (20,5%) que en producto (19,3%), aunque, como se puede apreciar, las diferencias no son muy significativas.

Todos los sectores de Bizkaia con 10 ó más trabajadores siguen la tónica general, innovando más en proceso que en producto. El mayor porcentaje de innovación en proceso, lo lleva acabo la industria, aunque con una tasa que cada vez se va acercando más a la innovación en producto (28,7% y 25,8%, respectivamente). El sector de servicio, con un 20,4%, también innova más en proceso (18,2%) que en producto (9,6%), con unas tasas que, en este caso, se encuentran más alejadas que el pasado año. En el caso del sector de la construcción, las innovaciones de proceso suponen un 6,5%, mientras que las de producto únicamente alcanzan un 5,3%.

La innovación de proceso predomina para las empresas con los estratos de empleo más pequeños y más grandes, mientras que en las empresas de tamaño mediano la situación está bastante equilibrada.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK



TIPOS DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA

Nork garatu ditu produktu horiek?

Produktu/zerbitzu berrikuntza gehienak enpresetan bertan garatzen dira (%34,4). Dena den, aukera horrek indarra galdu du 2011n, 4,6 puntu egin baitu atzera. Aitzitik, beste enpresa edo erakunde batzuetan egindako produktu/zerbitzu berrikuntzak nabarmen hazi dira (%3,9tik %17,5era igoz). Baina enpresako beste establezimendu batzuekiko lankidetza murriztu egin da (%20,2tik %18,2ra). 2009-2011 epealdian protagonismoa galdu du beste enpresa batzuekin lankidetzan eginiko produktu berrikuntzak (%36,8tik %29,8ra igaro da).

10 langile edo gehiagoko industri enpresen erdiak baino gehiagok (%57,6) barnean garatu zituzten produktu edo zerbitzu berrikuntzak 2009-2011 aldian. Portzentaje hori ehuneko 2,6 puntu jaitsi da aurreko epealdiarekin alderatuta. Era berean, sektore honetan 1,8 puntu hazi da beste enpresa batzuekin lankidetzan egindako produktu berrikuntza. Zerbitzuen sektorean, establezimenduan bertan eginiko produktu berrien garapenak pisu handia badu ere (%23,3), nagusi da beste enpresa batzuekin lankidetzan eginiko produktu berrikuntza (%34), baina portzentaje hori nabarmen jaitsi da 2010arekin alderatuta. Eraikuntzaren sektorean, beste enpresa batzuekin lankidetzan jarduten dute produktu berriak garatzeko.

19 langile baino gutxiago dituzten enpresak dira establezimenduan bertan produktu berrikuntza gehien egiten dutenak (%38,6), eta baita ere beste enpresa edo erakunde batzuetan gehien garatzen dutenak (%24,3). Tamaina handiagoko enpresak dira beste enpresa batzuekin lankidetzan gehien jarduten dutenak (%32,7) eta enpresa txikiak, berriz, lankidetza mota honetara gutxien jotzen dutenak (%26,3) produktuan berritzeko.


¿Quién ha desarrollado estos productos?

La mayor parte de las innovaciones de producto/servicio se desarrollan en las propias empresas (34,4%), alternativa que ha perdido fuerza en 2011 con un retroceso de 4,6 puntos. Por el contrario, han incrementado notablemente su fuerza las innovaciones de producto/servicio en otras empresas o instituciones (17,5% frente a 3,9%). Pero también disminuye la cooperación con otros establecimientos de la empresa (del 20,2% al 18,2%). En el período 2009-2011 también pierde protagonismo la innovación de producto realizada en cooperación con otras empresas (se pasa del 36,8% al 29,8%).


Más de la mitad (57,6%) de las empresas industriales de 10 ó más empleados desarrollan en 2009-2011 internamente las innovaciones de productos o servicios. Dicho porcentaje disminuye en 2,6 puntos porcentuales con respecto al período anterior. También en este sector se incrementa en 1,8 puntos la innovación en producto en cooperación con otras empresas. En el sector de servicios, aunque también tiene un destacado peso específico el desarrollo de nuevos productos en el propio establecimiento (23,3%), predomina, aunque con un porcentaje muy inferior a 2010, la innovación de producto en cooperación con otras empresas (34%). En el sector de la construcción el desarrollo de nuevos productos de lleva a cabo en cooperación con otras empresas.

Las empresas de menos de 19 trabajadores son las que más innovación de producto realizan en su propio establecimiento (38,6%) aunque también son las que más lo hacen en otras empresas o instituciones (24,3%). Las empresas de mayor tamaño son las más utilizan la cooperación con otras empresas (32,7%) y las empresas más pequeñas son las que menos hacen este tipo de cooperación (26,3%) para innovar en producto.

NORK GARATU DITU PRODUKTU HORIEK?



¿QUIÉN HA DESARROLLADO ESTOS PRODUCTOS?



Nork garatu ditu prozesu horiek?

Kasu honetan, aukera bat nabarmentzen da besteen gainetik: establezimenduan bertan eginiko prozesuek %43,3ko portzentajea erregistratu dute, aurreko urtekoa baino (%43,1) apur bat handiagoa. Egoera hau oso desberdina da 2010eko emaitzekin alderatuta, eta 2008koen antz handiagoa duen emaitza egiturara itzuli da. Gainerako aukerak antzeko emaitzetan mantendu dira, %18-24 inguruan. Azpimarratzekoa da beste enpresa edo erakunde batzuekiko lankidetzak izan duen atzeraldia.

Prozesu berrikuntza sektoreka aztertzen badugu, ikusiko dugu industriak sendo eusten diola prozesu berrikuntzak enpresan bertan gauzatzearen aldeko apustuari (%65,3) eta beste enpresa batzuekin egiten den lankidetzak murriztu egin dela. Eraikuntzaren sektorean prozesu berriak establezimenduan bertan garatu dira nagusiki (%68,9) eta gauza bera gertatu da zerbitzuen sektorean ere.

Tamaina guztietako enpresek nahiago dute berrikuntza prozesuak establezimenduan bertan egitea, baina 20 enplegatu baino gutxiagoko enpresak dira mota honetako berrikuntza prozesu gehien gauzatzen dituztenak (%56,1) eta baita ere beste enpresa batzuetan egiten dituztenak (%21,1). Enpresa handiek ere portzentaje altua erregistratu dute aukera honetan (%36,7) eta nagusi dira beste enpresa batzuekin lankidetzan eginiko prozesuen modalitatean (%29,6).


¿Quién ha desarrollado estos procesos?

En este caso, aparece una opción como claramente destacada: en el propio establecimiento con un porcentaje del 43,3%, ligeramente superior al 43,1% del año anterior. Esta situación supone un apreciable cambio con respecto a los resultados de 2010, retornando a una estructura de resultados más similar a la de 2008. El resto de alternativas presentan porcentajes similares en el entorno del 18-24%. Destacando el importante retroceso de la opción que supone la colaboración con otras empresas o instituciones.


Si analizamos la innovación de proceso por sectores observamos una confirmación de que la industria continúa apostando por llevar a cabo las innovaciones de proceso en la propia empresa (65,3%), disminuyendo la cooperación con otras empresas. En la construcción el desarrollo de nuevos procesos se ha llevado de manera mayoritaria en el propio establecimiento (68,9%), circunstancia que también se da en el sector de servicios.

Aunque las empresas de todos los tamaños optan principalmente por la innovación de proceso en el propio establecimiento, las empresas de menos de 20 empleados son las que más innovaciones de proceso de este tipo realizan (56,1%) y en otras empresas (21,1%). También las empresas más grandes presentan porcentajes elevados para esta alternativa (36,7%) y son las que más lo realizan en cooperación con otras empresas (29,6%).

NORK GARATU DITU PROZESU HORIEK?



¿QUIÉN HA DESARROLLADO ESTOS PROCESOS?



Produktu berrien eragin ekonomikoa enpresarentzat

2009-2011 aldian merkaturatu diren edo aurrekoekiko nabarmen hobetu diren produktu edo zerbitzu berriei dagokie 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen negozio-zifraren %18,9, eta enpresarentzat baino ez dira izan berriak. Portzentaje hori 2009-20011 aldikoa baino handiagoa da (%15,4).

Berrikuntza horiek 10 langile edo gehiagoko enpresen emaitza-kontuetan daukan eragina handiagoa da zerbitzuen sektorean (%20,4), eraikuntzarenean (%18,6) edota industriarenean (%17,4) baino. Gainera, sektore guztietan egin du gora produktu berrien ondoriozko negozio zifraren portzentajeak.

Lagina enpresaren tamainaren arabera zatituz gero, ikusten da enpresa ertainak direla (20 eta 99 langile bitartekoak) fakturazioaren arloan berrikuntzetatik errendimendu gutxien ateratzen dutenak eta, gainera, azken urtean murriztu egin da 50 eta 99 langile bitarteko enpresen multzoan (%25,3tik %17,3ra). Merkaturatutako produktu/zerbitzu berriei dagokie enpresa horietako negozio-zifraren %17 inguru. 100 langile baino gehiagoko enpresen iritziz, beren negozio-zifraren %19,5 merkaturatutako berrikuntzetatik dator eta portzentaje hori aurreko urteko tasa baino apur bat handiagoa da. Hazkunde nabarmenena enpresa txikiena da, beren inpaktu ekonomikoa hirukoiztu baitute.

Produktu berrien eragin ekonomikoa merkatuarentzat

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan 2011. urteko negozio-zifraren %14,6 produktu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak sartzearen ondoriozkoa da (establezimenduarentzat ez ezik, bere merkatuarentzat ere berriak). Zifra hori aurreko urtekoaren (2010) ia berdina da.

10 langile edo gehiago dituzten eraikuntza sektoreko enpresek adierazi dute produktu berri bat merkaturatu izanagatik fakturazio portzentajea %71,6koa dela. Industri sektorea 2010eko baloreetan mantendu da (%14,8) eta zerbitzuen sektorea, berriz, batez bestekoaren azpitik (%12,2), atzerakada txiki bat izan duelarik aurreko urteko portzentajearekin alderatuta.

Enpresak tamainaren arabera aztertuz gero, ageri da 50 eta 99 langile bitarteko enpresek lortu dutela 2010. urteko negozio-zifraren portzentaje handiena merkaturako produktu berriei esker (% 30,1), gainerako multzo guztiak %10-13 inguruko portzentajearen geratu direlarik.

Impacto económico de los productos nuevos para la empresa

Un 18,9% de la cifra de negocio de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados es atribuible a productos/servicios nuevos o sensiblemente mejorados a lo largo del período 2009-2011 y que únicamente fueron novedad para la empresa. Este porcentaje es superior al de 2009-20011 (15,4%).

El impacto en la cuenta de resultados de las empresas de 10 ó más empleados de estas innovaciones es superior en el sector de servicios (20,4%) que en la construcción (18,6%) y que en la industria (17,4%). Además, en todos los sectores se produce un avance en el porcentaje de cifra de negocio atribuible a productos nuevos.

Si segmentamos la muestra por tamaño de empresa, se puede observar que son las empresas de tamaño medio (entre 20 y 99 trabajadores) las que menos rendimiento en términos de facturación obtienen de estas innovaciones, presentando, además, las clasificadas con plantilla entre los 50 y los 99 trabajadores un importante retroceso en el último año (de un 25,3% a un 17,3%). Éstas atribuyen en torno a un 17% de su cifra de negocio a los nuevos productos/servicios introducidos en el mercado. Las empresas con plantillas con más de 100 trabajadores consideran que un 19,5% de su negocio se deriva de las innovaciones introducidas, un porcentaje superior a la tasa de un año antes. El avance más llamativo corresponde a las pequeñas empresas que multiplican por tres su impacto económico.

Impacto económico de los productos nuevos para el mercado

Un 14,6% de la cifra de negocio de 2011 de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados ha venido originado por la introducción de productos o servicios nuevos o sensiblemente mejorados (no sólo nuevos para su establecimiento, sino también para el mercado en el que operan). Dicha cifra es prácticamente igual a la equivalente de un año antes (2010).

Las empresas del sector de la construcción de 10 ó más empleados indican que su porcentaje de facturación por la introducción de nuevos productos para el mercado alcanza un 71,6%. El sector industrial se mantiene en los mismos valores de 2010 (14,8%) y ya por debajo de la media se sitúa el sector de servicios (12,2%) con un pequeño retroceso con respecto al año anterior.

En el análisis en función del tamaño de la empresa, se puede observar que las empresas de 50 a 99 trabajadores son las que presentan mayor porcentaje de la cifra de negocio de 2010 atribuible a productos novedosos para el mercado (30,1%), situándose el resto de grupos en el entorno del 10-13%.

Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua

Berrikuntzak sortzen dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek barneko I+G jardueretarako erabiltzen dute baliabide gehien, eta horren ondoren kanpoko I+G jardueretarako. Aipatu lehen jarduera horretan eginiko batez besteko gastua $-0,4\%$ murriztu zen 2011n eta bigarrenean, berriz, $11,8\%$ hazi zen. Hazkunde deigarriena berrikuntzak inplementatzeko diseinuan eta prestakuntzan eman da, izan ere $45,9\%$ hazi da 2010eko zifrekin alderatuta. Esanguratsua da zein txikia den langile berritzaileen prestakuntzan eginiko gastua, murriztu egin delarik 2010eko gastuaren aldean.

10 langile edo gehiagoko industri enpresak dira makineria eskuratzeko baliabide gehien esleitzen dutenak, alde handiarekin, nahiz eta sektore horretan ere barneko I+G den nagusi. Zerbitzu enpresek, ordea, barneko I+G jardueran kontzentratzen dituzte ia baliabide guztiak. EUSTATen Berrikuntza Teknologikoari buruzko Inkestak emandako datuen arabera, oro har 10 langile edo gehiago dituzten eraikuntzako enpresek baliabide gutxi bideratzen dituzte berrikuntza teknologikora, beste sektore batzuekin alderatuta.

Enplegu mailaren arabera azterketa bat eginez gero, tamainaren eta baliabideen logika dela eta, ageri da 100 langile eta gehiago dituzten enpresen batez besteko inbertsioa askoz ere handiagoa dela gainerako segmentuetan baino. Segmentu guztietan batez besteko gastu handiena barneko eta kanpoko I+G jardueretan egiten da, nahiz eta ekipamendu erosketak ere baduen garrantzia.

Berrikuntzaren finantzazio publikoa

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen $51,5\%$ ek laguntza finantzario publikoa jaso du 2011n, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2010. urtekoa baino 0,6 puntu handiagoa da. Finantzaketa hori gehienbat Eusko Jaurlaritzak emandakoa da ($41,1\%$).

Berrikuntza arloan bizitasun gutxien duena izaki, eraikuntza sektorea izan da laguntza finantzario publiko gehien lortu duena bere berrikuntza jardueretarako ($90,1\%$). Industria sektorearen portzentajea ($53,2\%$), bestalde, Bizkaiko batez bestekoa baino handiagoa da eta zerbitzuen sektorekoa, apur bat beherago kokatzen da ($48,7\%$).

Inkestako datuek adierazten dutenez, zenbat eta handiagoa izan enpresa orduan eta finantzaketa publiko gehiago jasotzen du; enpresa txikienei $44,3\%$ jasotzen dute eta handienek berriz $64,4\%$. Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien eman dituen administrazio publikoa eta enpresa handien kasuan, Administrazio Zentrala ere bai.

Gasto medio para la innovación tecnológica

La I+D interna es la actividad a la que dedican más recursos las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innovan, seguida de la I+D externa. El gasto medio de la primera de ellas se reduce en 2011 en un $-0,4\%$, mientras que la segunda aumenta en un $11,8\%$. El crecimiento más llamativo tiene lugar en el diseño y preparativos para la implementación de innovaciones ya que aumenta un $45,9\%$ con relación a la cifra de 2010. Resulta significativo el reducido gasto dedicado a la formación de personal innovador, gasto que además se reduce con respecto a 2010.

Las empresas industriales de 10 ó más empleados son, con diferencia, las que más recursos dedican a la adquisición de maquinaria, aunque la opción preferente es la I+D interna. Las empresas de servicios, sin embargo, concentran sus recursos prácticamente en su totalidad en la I+D interna. En general, según los datos de la encuesta de Innovación Tecnológica del Eustat, las empresas constructoras de 10 ó más empleados dedican pocos recursos, en comparación con los otros sectores, a la Innovación tecnológica.

En un análisis por estrato de empleo se puede observar que, por lógica de dimensión y disponibilidad de recursos, las empresas con plantilla superior a 100 empleados, muestran una inversión media significativamente superior a la del resto de segmentos. En todos los segmentos el mayor gasto medio se centra principalmente en la I+D interna y en la I+D externa, aunque también la compra de equipamiento tiene su protagonismo.

Financiación pública de la innovación

Un $51,5\%$ de las empresas de Bizkaia que hacen innovación y de 10 ó más empleados recibe apoyo financiero público para sus actividades de innovación en 2011, ya sea en forma de préstamos o subvenciones, dicho porcentaje supera en 0,6 puntos su equivalente de 2010. La mayor parte de dicha financiación proviene del Gobierno Vasco ($41,1\%$).

El sector de la Construcción, el menos activo en materia de innovación, es el que más financiación pública ha conseguido para sus actividades de innovación ($90,1\%$). La industria, por su parte, con un ($53,2\%$) presenta un porcentaje superior a la media del conjunto de Bizkaia, mientras que el sector de servicios se sitúa en un valor ligeramente inferior ($48,7\%$).

Los datos de la encuesta señalan que a mayor tamaño de empresa más financiación pública, pasando desde un $44,3\%$ para las empresas más pequeñas a un $64,4\%$ para las más grandes. Al igual que en años anteriores, el Gobierno Vasco es la Administración Pública que más ayudas concede, a lo que ha de incorporarse la Administración Central para las empresas más grandes.

Lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak

Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntzak sortzen dituzten enpresen %30,8k I+G jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2009-2011 aldian. Portzentaje hori 2008-2010 aldikoa baino 5,3 puntu handiagoa da.


NORK GARATU DITU PRODUKTU HORIEK?



Establecimientos con acuerdos de cooperación

Un 30,8% de las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innova ha firmado acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación con otras empresas o Instituciones en el horizonte temporal 2009-2011. Dicho porcentaje se sitúa 5,3 puntos por encima del correspondiente período 2008-2010.

¿QUIÉN HA DESARROLLADO ESTOS PRODUCTOS?



Eraikuntza enpresak dira berrikuntza jardueren inguruan lankidetza hitzarmen gehien egiten dituztenak (%90,1), bereziki bezero eta hornitzaileekin. Industri enpresek (%29,6) zerbitzuetakoek baino (%28,2) lankidetza hitzarmen gehiago sinatzen dituzte, nagusiki Teknologi Zentroekin (%19,1).

Enplegu mailari erreparatuz gero, lankidetza hitzarmenen kopurua enpresen tamainaren arabera da. Hala, enpresa handienetan (100 langile baino gehiagokoetan) I+Gren eta berrikuntza jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak %50,5 dira; portzentaje hori %32-34raino jaisten da enpresa ertainetan eta %19,2raino txikienetan.

Las empresas de construcción son las que llevan a cabo más acuerdos de cooperación sobre actividades de innovación (90,1%), especialmente con los clientes y proveedores. Las empresas industriales (29,6%) suscriben más acuerdos de cooperación que las de servicios (28,2%) y lo hacen, fundamentalmente, con Centros Tecnológicos (19,1%).

En el análisis por estrato de empleo, el número de acuerdos de cooperación tiene una cierta correlación positiva con el tamaño de las empresas. Así, un 50,5% de las empresas más grandes (con más de 100 trabajadores) y que innova, suscribe acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación, porcentaje que va disminuyendo hasta el 32-34% para las empresas de tamaño intermedio o el 19,2% para las empresas más pequeñas.

Berrikuntza eragozten duten faktoreak

2011. urtean, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %68,3k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran, hots, 2010ean baino 1,1 puntu gehiago.

Sektorekako analisian, 10 langile edo gehiago dituzten industriak dira zailtasun gehien dituztenak (%76,4), bereziki berrikuntzaren kostu altuengatik eta gehiegizko arrisku ekonomikoengatik. Gainera, zailtasunaren portzentajeak nabarmen handitu dira 2010ekoekin alderatuta. Ugaritu egin dira baita ere zerbitzuen sektoreko zailtasunak, portzentajea %64,8tik %66ra igaro delarik. Aitzitik, eraikuntzaren sektorean ehuneko 4,2 puntu murriztu dira. Sektore bietan garrantzi handiagoa ematen zaie faktore ekonomikoei barneko arazoen gainetik, eta hala berrikuntzaren kostu handia da zailtasun nagusia.


Factores que dificultan la innovación

Un 68,3% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha encontrado en 2011 algún tipo de dificultad en su actividad de innovación, un porcentaje 1,1 puntos superior al del año 2010.

En el análisis sectorial, las industrias de 10 ó más trabajadores son las que más dificultades encuentran (76,4%), especialmente originadas por los elevados costes de la innovación y los riesgos económicos excesivos, dificultades han aumentado apreciablemente sus porcentajes con respecto a 2010. También aumentan las dificultades en el sector de servicios, pasando de un 64,8% a un 66%, mientras que, por el contrario, las dificultades han disminuido en 4,2 puntos en la construcción. En ambos sectores pesan más los factores económicos que los internos, constituyéndose como la principal dificultad los costes elevados de la innovación.

BERRIKUNTZA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK


FACTORES QUE DIFICULTAN LA INNOVACIÓN



Berrikuntzaren teknologikoko jardueretarako informazio iturriak

Enpresek emandako erantzunen arabera, informazioa oso aldagai garrantzitsua da enpresa berritzaileentzat beren berrikuntzak gauzatzeko orduan, hain zuzen %84,4k adierazi dute oso garrantzitsua dela. Dena den portzentaje hori 8,2 puntu murriztu da 2010ekoarekin konparatuta. Aipatzekoa da gero eta garrantzi handiagoa ematen zaiola aholkulari, lehiakide, bezero eta hornitzaileengandik jasotako informazioari, eta, aldiz, beherantz egin duela enpresa barruko informazioaren garrantziak.

BERRIKUNTZA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK



Sektoreka aztertuz gero, zerbitzuen sektoreetako enpresak dira informazioa gehien baloratzen dutenak jarduera berritzaileak martxan jartzean. Eraikuntza sektorearen balorazioa batez bestekoaren azpitik kokatzen da.

Enplegu estratuaren arabera, enpresa ertainak (20 eta 99 langile bitartekoak) dira informazioa gehien baloratzen dutenak beren berrikuntza jarduerak garatzeko; aldiz, enpresa handienak dira garrantzi gutxien ematen diotenak.

Fuentes de información para actividades de innovación tecnológica

Las respuestas de las empresas indican que la información resulta una variable muy importante para las empresas innovadoras a la hora de llevar a cabo sus innovaciones ya que un 84,4% de las mismas la señalan como relevante, no obstante este porcentaje ha disminuido en 8,2 puntos con respecto a 2010. Cabe destacar el aumento de la importancia concedida a la información proveniente de consultores, competidores, clientes y proveedores y el retroceso de la importancia de la información interna de la empresa.

FUENTES DE INFORMACIÓN PARA ACTIVIDADES DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA


En el análisis sectorial, las empresas del sector de servicios son las que mejor valoran la importancia de la información a la hora de poner en marcha actividades innovadoras. La valoración del sector constructor se sitúa por debajo de la media.

Por estrato de empleo, las empresas de un tamaño intermedio (entre 20 y 99 trabajadores) son las que valoran de un modo más elevado la información a la hora de desarrollar actividades de innovación, mientras que son las empresas más grandes las que le conceden una menor importancia.

Patenteak eta bestelako babes metodoak

2009-2011 aldian, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %24,5ek patenteren bat eskatu du, patenteren bat indarrean zuen edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili du. Ehuneko hori 2010ekoa baino 5,3 puntu baxuagoa da.

PATENTEEN ETA BESTELAKO BABES METODOEN ERABILERA




Bizkaiko 10 langile edo gehiagoko enpresei dagokienez, eraikuntzaren sektorekoetan bakarrik hazi da nabarmen patenteen eta bestelako babes metodoen erabilpena berrikuntzak babesteko (%9,2tik %67,4ra igo da) eta gorakada hori fabrika markak ugaritu izanari zor zaio nagusiki.

Enpresa handien (100 langile edo gehiagokoak) %39,3k patenteren bat eskatu dute 2009-2011 aldian, patenteren bat indarrean zuten 2010. urtearen amaieran edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili dute aldi horretan. Enpresa horiek dira halaber patente gehien erregistratu dituztenak (%19,4) eta patente gehien indarrean dituztenak (%20,4). Oro har, enpresen tamaina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta txikiagoa da mota horretako babes metodoen erabilpen portzentajea.

Patentes y otros métodos de protección

En el período 2009-2011, un 24,5% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha solicitado alguna patente, tenía alguna patente en vigor o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones. Este porcentaje es 5,3 puntos porcentuales inferior a la tasa correspondiente al 2010.

USO DE PATENTES Y OTROS MÉTODOS DE PROTECCIÓN



Únicamente las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores del sector de la construcción aumenta de un modo importante el uso de patentes y otros métodos de protección de sus innovaciones (pasa del 9,2% al 67,4%), aumento centrado básicamente en el incremento de las marcas de fábrica.

Un 39,3% de las empresas de mayor tamaño (más de 100 trabajadores) ha solicitado alguna patente en el período 2009-2011, tenían alguna patente en vigor a finales de 2010 o han hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones en ese período. También son estas empresas las que han registrado más patentes (19,4%) y tienen más patentes en vigor (20,4%). En líneas generales, según se va reduciendo el tamaño de las empresas los porcentajes de utilización de este tipo de métodos de protección también se reducen.

Antolakuntzako berrikuntza

Antolakuntzako berrikuntza deitzen zaio enpresaren barne funtzionamenduan (ezagutza kudeatzeko metodoak/sistemak ere bai), lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan lehenago inoiz erabili gabeko antolakuntza metodo berriak sartzeari. Erabaki estrategikoen ondorio izan behar du. 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %19,7k horrelako aldaketaren bat egin dute 2009-2011 aldian. Ehuneko hori 2008-2010 aldikoa baino 0,7 puntu txikiagoa da.

Sektoreka, 2009 eta 2011 artean antolakuntzan berrikuntzak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko industriak %19,3 dira. Ehuneko hori 2008-2010 epealdikoa baino 0,6 puntu handiagoa da. Eraikuntza sektorea da mota honetako aldaketa gutxien aplikatu dituen eta, gainera, kasu honetan portzentajearen tasa murriztu egin da. Zerbitzuei dagokionez, esan behar da antolakuntzako berrikuntza gehien egiten dituen sektorea dela (%22,3), nahiz eta portzentaje horrek 0,3 puntuko beherakada txiki bat izan duen 2010aren aldean.

Enplegu estratuaren arabera azterketan, beste aldagai batzuetan bezala, mota honetako estrategiak aplikatzeak lotura zuzena du enpresen tamainarekin. Kasu honetan, enpresa handienak dira mota horretako aldaketa gehien egin dituztenak (%36,7) eta atzetik doaz 50 eta 99 langile bitartekoak (%27,7).


Innovación organizativa

Una innovación organizativa consiste en la implementación de nuevos métodos organizativos en el funcionamiento interno de la empresa (incluyendo métodos/sistemas de gestión del conocimiento), en la organización del lugar de trabajo o en las relaciones externas que no han sido utilizadas previamente por la empresa. Debe de ser el resultado de decisiones estratégicas. Un 19,7% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha realizado alguno de estos cambios en el período 2009-2011, y dicha tasa se ha reducido en 0,7 puntos con respecto al período 2008-2010.

En el plano sectorial las industrias de 10 ó más trabajadores que han llevado a cabo innovaciones organizativas entre los años 2009 y 2011 alcanzan un porcentaje del 19,3%. Esta tasa es superior en 0,6 puntos a la correspondiente al período 2008-2010. El sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios y además los ha reducido. Por lo que se refiere al sector de servicios, es el que pone en práctica en mayor medida innovaciones de carácter organizativo (22,3%), mostrando una pequeña disminución en 0,3 puntos con respecto a 2010.

El análisis por estrato de empleo muestra, al igual que sucede con otras variables, que la aplicación de este tipo de estrategias viene ligada, de un modo bastante claro, al mayor o menor tamaño de las empresas. En este caso, son las empresas con mayor dimensión las que más han aplicado este tipo de cambios (36,7%), seguidas por las de 50 a 99 trabajadores (27,7%).

ANTOLAKUNTZAKO BERRIKUNTZA




KANPO HARREMANETAKOA
DE REL. EXTERNAS

LANEKO
DE TRABAJO

PROZEDURAKOA
DE PROCEDIMIENTO

GUZTIRA
TOTAL



INNOVACIÓN ORGANIZATIVA

Merkaturatze berrikuntza

Merkaturatze berrikuntza deitzen zaio merkataritza estrategia edo kontzeptu berriak implementatzeari; estrategia edo kontzeptu horiek aurretik erabiltzen zirenengandik desberdinak izan behar dute eta sekula erabili gabeak. Aldaketa handia ekarri behar du produktuaren diseinuan edo ontziratzean, posizionamenduan, sustapenean eta prezioan. 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %9,4k horrelako aldaketaren bat egin dute 2009-2011 aldian. Ehuneko hori 2008-2010 aldikoa baino 0,3 puntu handiagoa da.

Sektoreka, 2009tik 2011ra bitartean merkaturatze prozesuan berrikuntzaren bat egin dute 10 langile edo gehiagoko industri enpresen %10,7k. Tasa hori batez bestekoaren gainera dago eta 2008-2010 epealdikoa baino hiru puntu handiagoa da. Eraikuntzaren sektorea da era honetako aldaketa gutxien egin duena, baina sektore horretan ere ugariagoak dira aldaketak. Hala, 2008-2010eko %2,9tik 2009-2011ko %3,7ra igaro da. Zerbitzuen sektoreari bagagozkio, aurtan ere murriztu egin da mota honetako berrikuntzen portzentajea, %10,6tik %9,9ra jaitsi delarik.

Enplegu mailaren arabera aztertuz gero, ageri da, beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, horrelako estrategiak abiarazteak neurri batean lotura duela enpresen tamainarekin. Kasu honetan, tamaina handieneko enpresek egin dituzte mota honetako aldaketa gehien (%17,1). Enpresa txikiak berriz portzentaje askoz txikiagoak dituzte: %8,7. Bilakaerak erakusten du horrelako aldaketak gero eta gehiago aplikatzen direla muturreko taldeetan (enpresa handienetan eta txikiak) eta, aldiz, murriztu egin direla tamaina ertaineko taldeetan.


Innovación de comercialización

Una innovación de comercialización es la implementación de nuevas estrategias o conceptos comerciales que difieran significativamente de los anteriores y que no hayan sido utilizados con anterioridad. Debe suponer un cambio significativo en el diseño o envasado del producto, en el posicionamiento del mismo, así como en su promoción y precio. Un 9,4% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha realizado alguno de estos cambios en el período 2009-2011, y dicha tasa ha aumentado en 0,3 puntos con respecto al período 2008-2010.


En el plano sectorial las industrias de 10 ó más trabajadores que han llevado a cabo innovaciones de comercialización entre los años 2009 y 2011 alcanzan un porcentaje del 10,7%, una tasa que se sitúa por encima de la media y que es superior en tres puntos a la correspondiente al período 2008-2010. El sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios pero también los ha aumentado. Así, se ha pasado de un 2,9% en 2008-2010 a un 3,7% en 2009-2011. Por lo que se refiere al sector de servicios, reduce también en este año la puesta en práctica de este tipo de innovaciones, ya que se ha pasado de un 10,6% a un 9,9%.

El análisis por estrato de empleo muestra, al igual que sucede con otras variables, que la aplicación de este tipo de estrategias viene ligada, en cierta medida, al mayor o menor tamaño de las empresas. En este caso, son las empresas con mayor dimensión las que más han aplicado este tipo de cambios (17,1%). Las empresas más pequeñas se sitúa en porcentajes notablemente más alejados: 8,7%. La evolución muestra que la puesta en marcha de este tipo de cambios ha aumentado en los grupos extremos (empresas más pequeñas y más grandes), mientras que ha disminuido en los grupos de mediano tamaño.

MERKATURATZE BERRIKUNTZA



INNOVACIÓN DE COMERCIALIZACIÓN



10 Langile eta gehiago dituzten establezimenduak berrikuntza motaren arabera 2009-2011

Teknologikoa ez den berrikuntza mota
Tipo de innovación no tecnológica

Antolakuntzakoa
De organización

Merkaturatzekoa
De comercialización

Teknologikoak ez diren establezimendu berritzaileak
Establecimientos innovadores no tecnológicos

1 Establezimendu berritzaile teknologikoak
Establecimientos innovadores tecnológicos

1 Establezimendu berritzaileak (teknologikoak ala ez teknologikoak)
Establecimientos innovadores (tecnológicos o no tecnológicos)

2 Establezimendu berritzaileak EIN (teknologikoak ala ez teknologikoak)
Establecimientos innovadores EIN (tecnológicos o no tecnológicos)

1 Establezimenduak ez dira kontuan hartuko berrikuntza egiten ari badira edo berrikuntzak porrot egin badu.

2 Establezimenduak kontuan hartuko berrikuntza egiten ari badira edo berrikuntzak porrot egin badu ere.
Unitatea: establezimenduen portzentajea

Cuadros comparativos

Establecimientos de 10 y más empleados por tipo de innovación 2009-2011

C. A. Euskadi Álava Bizkaia Gipuzkoa

7,4% 6,8% 7,2% 7,9%

6,7% 8,9% 5,3% 8,0%

10,7% 11,2% 9,7% 12,0%

12,3% 11,7% 11,1% 14,5%

17,8% 17,6% 16,5% 19,9%

18,3% 18,8% 16,9% 20,1%

1 No incluye los establecimientos que únicamente realizan innovación en curso o fallida.

2 Incluye los establecimientos que únicamente realizan innovación en curso o fallida.
Unidad: porcentaje de establecimientos

Teknologi berrikuntzarako gastuak guztira 2011

Guztira (mila €)
Total (Miles €)

Barneko I+G
I+D interna

Kanpoko I+G
I+D externa

Makinak
Maquinaria

Beste ezagutza batzuk
Otros conocimientos

Prestakuntza
Formación

Merkaturatzea
Comercialización

Diseinua eta prestakuntza
Diseño y preparativos

Gasto total en actividades para la innovación tecnológica 2011

C. A. Euskadi Álava Bizkaia Gipuzkoa

2.675.721 526.484 1.325.992 823.245

51,1% 33,1% 52,2% 60,8%

13,5% 9,5% 13,8% 15,4%

20,3% 45,0% 14,6% 13,7%

2,1% 3,4% 1,4% 2,3%

2,2% 1,7% 2,8% 1,4%

1,7% 2,1% 1,3% 2,0%

9,2% 5,2% 13,8% 4,3%

Produktu berrikuntzak negozio zifran izan duen eragin ekonomikoa 2009-2011

Impacto económico de las innovaciones de producto sobre la cifra de negocios 2009-2011

	C. A. Euskadi	Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Produktu berria duten establezimenduak Establecimientos con innovación de producto				
Produktu berria establezimenduarentzat Por producto nuevo para el establecimiento	23,0%	19,2%	24,0%	23,8%
Produktu berria merkatuarentzat Por producto nuevo para el mercado	12,1%	5,3%	13,8%	13,8%
Aldatu gabeko produktua Por producto sin alterar	64,6%	75,5%	62,2%	62,7%
Establezimenduak guztira Total establecimientos				
Produktu berria establezimenduarentzat Por producto nuevo para el establecimiento	5,6%	5,3%	5,3%	6,3%
Produktu berria merkatuarentzat Por producto nuevo para el mercado	2,9%	1,5%	3,0%	3,6%
Aldatu gabeko produktua Por producto sin alterar	91,4%	93,2%	91,7%	90,1%

Unitatea: negozio zifren gaineko eragin ekonomikoaren portzentajea

Unidad: porcentaje del impacto económico sobre la cifra de negocios



bizkaiko
berrikuntza
behatokia observatorio
de la innovación
de bizkaia



Newsletter

Harpidetu zaitez buletinera eta jaso gure Newsletter-a. Bertan aurkituko dituzu azken laguntza eta diru-laguntzak, albiste interesgarriak, agenda eta berrikuntzari buruzko informazio guztia.

Suscribete al boletín para recibir nuestra Newsletter con las últimas ayudas y subvenciones, noticias de interés, agenda y más... todo sobre innovación.

Twitter 
@barrixe

Twitter kontu bat dugu orain. Aukera izango duzu gurekin bat egiteko eta berrikuntzarekin lotutako guztia egunero ezagutzeko.

Ya disponemos de nuestro propio Twitter. Podrás unirte a nosotros, saber y compartir día a día todo lo relacionado con la innovación.

www.barrixe.com
info@barrixe.com

facebook 
/barrixe



News

Berrikuntzaren inguruko azken berriak ezagutu nahi dituzu?
Azken laguntzak, azken albisteak, joerak eta ikastaroak?

¿Quieres estar a la última sobre innovación? Las última
ayudas, las últimas noticias, tendencias, cursos?

RSS



Jaso ezazu Barrixeko informazio eguneratua modu simple batean eta zuzenean zure ordenagailuan, webean sartu beharrik gabe.

Recibe la información actualizada de barrixe, de una forma muy sencilla y directamente en tu ordenador, sin necesidad de tener que entrar en la web.